



Esp. kodea: 2022PHLF0012
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: Administrari laguntzaile bi, lehiaketa

IRAGARKIA

Administrari laguntzaile plazari dagokion deialdian eskainitako lanpostuak

Ikusita Administrari laguntzaile bi, lehiaketa bidez, aukeratzeko prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratu direla, Arrasateko Udaleko Alkateak, 2024ko irailaren 11ko dataz N24/02441 zenbakiko ebazpenaren bidez, hau xedatu du:

Lehenengoa.- Destinoa aukeratzeko prozedura hastea, eta 10 egun balioduneko epea ematea, Epaimahai kalifikatzaileak eskainitako hurrengo plazetarako behin betiko kalifikazioen proposamenean dauden hautagaiei.

Eskainitako plazak: Administrazio Orokorreko eskalako 2 plaza, titulazioko C2 taldea

Lanpostuak: Administrazioa Kontuhartzaitza (Lanpostuen zerrendako 20 kodea) eta Administrari laguntzailea pertsonala/ enplegua/ingurumena (Lanpostuen zerrendan 154 kodea).

Destino osagarria: 18

Berariazko osagarria: 13,190.31 euro

Euskararen hizkuntza-eskakizuna: 3 Derrigortasun data: (LZ agertzen direnak)

Adierazitako diru-kopuruak onartutako azken lanpostu-zerrendan jasotakoak dira, geroago onartutako ordainsari-igoerei kalterik egin gabe.

Destinoa aukeratzeko prozeduran parte hartzera deitutako pertsonak lanpostu zerrenda bakarra egingo dute, eta, bertan, beren lehentasunen arabera, eskainitako plazei lotutako lanpostuak ordenatuko dituzte.

Hautaketa-prozesuan parte hartzearen ondoriozko eskubideak galduko dituzte destinoa 11.1. oinarri orokorrean aurreikusitakoaren arabera garaiz eta moduan aukeratzen ez dutenek.

Bigarrena.- Destinoa aipatutako deialdiaren oinarri espezifikoetako 11.3 eta 11.4 atalen arabera aukeratu da: Lanpostuak elektronikoki aukeratzeko, <https://epe.arrasate.eus>-en dagoen inprimakia bete beharko da. Era berean, izapide hori bete ahal izango da 7.3 oinarrian adierazitako Arrasateko Udalaren bulegoetara joanda, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bulegotan aurkeztuta.

Hirugarrena.- Deialdi honen oinarrietan adierazitakoaren arabera, ebazpen hau jendaurrean jartzea, eta, beraz, kualifikaziorik gabeko izapide egintza dela adieraztea, eta, beraz, haren aurka ezin da inolako administrazio errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe prozeduran ematen den behin betiko ebazpenaren aurka jartzen diren errekurtsuak.

Alkatea

Kodea	AG24/01383	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA12QH2.8.WyV5			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA12QH28.WyV5			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitzez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2022PHLF0012
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: Administrari laguntzaile bi, lehiaketa

ESKAINITAKO LANPOSTUEN LEHENTASUN HURRENKERA

Nik,.....
.....
..... jaunak/andreak, **ADMINISTRARI LAGUNTZAILE** deialdian eskaintzen diren lanpostuak esleitzeko, lehentasun hurrenkera adierazten dut (1 eta 2):

HURRENKERA	LANPOSTUA
	Administrazioa Kontuhartzaitza (LZ 20 kod.)
	Administrari laguntzailea pertsonala/ enplegua/ingurumena (LZ 154 kod.)

Kodea	AG24/01383	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA12QH2.8.WyV5			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA12QH28.WyV5			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitex webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				